

GALDERA IKURRAK ATRILETAN ZINTZILIK

Bihotz Bakartien Kluba, Literaturuzta eta Mikelazulo kultur elkarteak



Maiatzaren 9tik 14ra VI. Poesiaren Astea antolatu zuen Mikelazulo kultur elkarteak. Euskal Herri osotik poesia irakurtzera eta gozatzera etorritako idazle eta adiskideei esker osatu zein beste behin hitzordua. Egitaraua intentsoa izan zen, eta larunbateko ekitaldia bereziki oroi-menean gordetzeko modukoa.

Maiatzaren 13an lehenik eta behin "Atriletan zintzilik" ikuskizuna eskaini zen Pasai San Pedroko udal aretoan: musika, antzerkia eta batez ere poesia, egun horretarako bereziki landutako eskenografia nahiz argi jokoan laguntzaz. Ikuskizunaren antolakuntza lanetan ibili ziren Mikelazulorekin batera Azpeitiko Literaturuzta aldizkariko taldea eta Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubeko kideak (BBK).

Hori zen eta ikuskunaren oinarrian zegoena: elkarlarnetik eta arte disziplina ezberdinen uztarketatik abiatutako ikuskizunaz gain, poesiaren inguruko gogoeta plazaratzeko grina. Errenteriako Udaleko Euskara Zerbitzuaren eskaerari jarraituz hain zuzen ere, ikuskizunaren ostean etorkizunean jarraipena izan ahal duen topaldia burutu zen parte hartzaileen artean.

Honako hau izan zen egun horretako ospakizunen harira plazaratutako gogoeta:

Atriletan Zintzilik

Joan dira zenbait urte herriz herri poemak irakurtzeari ekin genionetik. Joan dira zenbait urte Behinola zabalik eta garbi zegoen bidea sasiak jan gura zuela ohartu eta berriz ere garbitzeari ekin genionetik..Orduetik, egiten duguna zentzugabeko nahasketa baino ez dela leporatu digute. Gure testuek ez dutela deus balio eta horregatik apaintzen ditugula desitxuratu arte, anabasan galarazi arte. Gure helburua nabarmentzea ei da, komunikabideetan ahalik eta foto gehien hemerotekatzea. Posearen poetika ei da gurea.

Buruko azkura hori baretu gurean hasi gara berbetan; Egia da, akaso beldurra diogu gure poemak, daudenean, ordubetez irakurtzeari. Geuk ere aurreiritziak ditugu: poesia astunegia da, aspergarriegia, bere horretan eskaintzeko, horregatik laguntzen gaituzte musikari, aktore, margolari, irudigile eta enparauak. Baina oraingoz, liburuak ez dakarte musikarik!? Poesia liburuetan ez da ilustratzaileen zantzorik!? Ez baitira bizileku bera poemarentzat liburu eta oholta. Liburuan etxeko da poema eta oholta etorkin. Orduan igo ditzagun liburuak oholzetara eta esan dezatela esan beharrekoa, guk idatzi genituen, utz gaitzatela baketan! ai baina entzungo duenik ez badago?! eta... entzuten duenak hori baino ez du egiten, entzun? begiak itxita dator? konpasa galdua?

Bildu ginen poetak, musikariak, aktoreak, pintoreak eta enparauak. Bildu ginen hizkera bat darabilgulako, irakatsi zigutenari aurre egiteko geurea sortzeko beharra dugulako. Elkar ulertzen dugu. Ez gara gor, mutu, itsu.

Baina ikastea memoria ariketak egitea ere bada eta sortzen ari garena erreparatzeko astia hartu beharrean gaude. Horregatik dakartzagu galdera ikurra atriletan zintzilik. ■